

Lau konpositore garaikide Laboaren omenez bihar Donostian

Mikel Laboa Katedrak enkargatutako lau pieza entzun ahal izango dira Victoria Eugeniako Club Aretoan

∴ F. IBARGUTXI

DONOSTIA. Musika garaikidea egiten duten konpositore batzuek Mikel Laboaren omenez sortutako doinuak entzun ahal izango dira bihar 20:00etan Victoria Eugenia antzokiko Club Aretoan.

'Laboari oihartzun' ipini diote izenburu ekimenari. Mikel Laboa Katedraren enkarguz, konpositore

batzuek pieza berriak sortu dituzte kantari haren kanturen bat abiapuntuztat hartuta. Musikagileak izeneko elkarterekin izan du harremana Katedrak, eta hamai-ka konpositorek egin dute lana. Bihar horietako lauren sorkuntza-lanak entzungo dira. Zuriñe Fernandez de Gerenabarrena 'Txori erraria' konposatu du; Ramon Lazkanok 'Izarren hautsa'; Maria Eugenia Luc-ek 'Eta Hostoz ostu'; eta Gabriel Erkorekak 'Orreaga'. Konpositoreei eskatu zitzaie, ahal zela, batik bat 'Lekeitioak' sortako abestiei erreparatzea, eta gehienek hala egin dute.



Gabriel Erkoreka.

Ensemble Kuraiak joko ditu piezok. Maria Eugenia Luc konpositoreak Bilbon 1997an sortutako taldea da, eta, Andrea Cazzanigaren zuzendaritzaren pean, gaur egun zazpi kide ari dira bertan.

Biharko emanaldian, dena ez da musika izango. Pieza eta pieza artean William Shakespeareren bederatzi sonetoren irurketa entzungo da, eta Koldobika Jauregik sortutako irudi minimalista batzuk proiektatuko dira. Juan Garzia Garmendiak euskaratu ditu soneto horiek, eta Nekane Lasak, Maialen Berasategik eta Juan Garziak berak irakurriko dituzte.

Gabriel Erkorekak honela eman

du bere 'Orreaga' lanaren berri: «'Lekeitioak 6' delakoan oinarritu naiz. Zazpi instrumentuko ganbaria-talderako idatzita dago pieza, gitarra barne. Modu sinbolikoan, gitarra da hari nagusia continuum batean. Laboaren eztarri-hots haiek islatu ditut, bai harizko instrumentuen bidez bai pianoan bertan, kautxo-zati bat erabilia».

KONTZERTUA

Noiz: Bihar, 20:00etan.

Konpositoreak: Zuriñe Fernandez de Gerenabarrena, Ramon Lazkanok, Maria Eugenia Luc eta Gabriel Erkoreka.

Diano Vasco / 18-10-14 /